

Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2011ko maiatza 30



Beasaingo Udala



Loinatz abesbatza 25 urte kantuan

4

DONE JAKUE BIDEA
Uda aurretik zabalduko da
Igartzako errota erromen-
sentzat aterpetxe bihurtuta

10

ARRIARAN AUZOA
Intxaurpe elkarteko kideak
esku-bete proiektuekin
datoz

11

GIZARTE ZERBITZUAK
Arangoiti egoitzaren eraikin
berriko lanak hilabete hone-
tan amaituko dira

"Errezil sagar eta postu dotoretasun lehiaketa". Beasaingo Udala.



"Sin titulo". Beasaingo Udala



"San Martingo prozesioa", 2010. Xabier Garmendia



Beasain

"S.D. Beasain futbol taldea Gipuzkoako txapeldunak". Beasaingo Udala



eta beasaindarrak

"Giza futbolina Loinatzeko gunean", 2001. Juantxo Unanua.



Puedes colgar tus fotos en www.guregipuzkoa.net
Algunos beasaindarrak ya lo han hecho.
Éstas son algunas de las fotos que han subido. Animatu zaitetz!

"Sin titulo". Beasaingo Udala.



"Txistu eguna, kontzertua plazan".Beasaingo Udala.



"Sin titulo". Beasaingo Udala.





Datozen udal hauteskundee-tara ez naiz alkatezarako aurkezte, zortzi urte alkate izan ondoren.. Beraz agurtzera natorkizu alkate bezala. Zortzi urte bete beteak eman ditut alkatez, lanik ez zait falta izan eta beti herri-tarrak izan ditut aurrean. Urte aberatsak niretzat jende jator asko ezagutu dudalako. Udal lanean genituen egitasmo asko aurrera atera ditugu. Gizarte zerbitzuak indartu ditugu eguneko hiru zentro berri ditugu eta Arangoiti egoitza handitu. Hirigintza lanak ere helburu jakina izan dute: herri-tarren elkarguneak eta topaguneak ugaritu eta egokitu elkarbizitza sendotzeko (jolas parkeak, egonlekuak, igogailuak ..) eta aldi berean aukerak eman beasaindarrak bizitza osasuntsua egin dezaten(kirolguneak, paseatzeko toki zabalak eta atseginak, bidegorriak...). Etxebizitza arloan nahi genuen guztia ezin izan dugu burutu, baina Bista Alaiko etxe berriek eta Arana kaleko berritzeak benetako poza ematen didate. Igartzta guneak ere itxuraldatu dio herriari eta ezkutan zeuden altxorrak beasaindarrrentzat harrotasun iturri bihurtu dira. Hau guztia eta gehiago Udal taldea gertu izan dudalako lortu da eta udal langileen zintotasuna eta profesionaltasunari esker ere.

Beasaindar guztioi nire agurrekin batera, nire esker ona eta norbaitekin huts egin badut nire barkamena.

Loinatz Abesbatza bere 25. urtemuga ospatzen ari da. Herrian ondo errotutako, elkartea dugu hau. Urtean zehar maila handiko emanaldiak eskeintzen dituzte herrian eta bere bitartez ere beste talde batzuk inguratzen dira Beasainera. Herri-kanpo Beasain herriaren izena ondo baino hobetu zabalitzen dute. Udalak bat egiten du ospakizun honekin eta eskerrak ematen dizkio Abesbatzari bere inguruan herri-asko bildu eta biltzen dituelako.

Pepe eta Julio ere agertzen dira aldizkarian. Beasaindar ezagunak. Herriko jendea eta txoko gehienak ondo ezagutzen dituztenak. Azken urte hauetan herrian eman diren aldaketan lekuko bi-ziak.

Arangoitiko handitze lanak bukatzeaz daude eta laster residente gehiago hartzeko prest izango da. Juan Beldarrain arkitektoak nolako lanak egin diren agertzen du aldizkario ale honetan.

Done Jakue bidea indarra hartzen ari da Euskal Herrian eta gero eta erromes gehiago ikusten da Beasainen ere. Nahitaezkoa da aterpe sare egokia prestatzea bide hori sendotzeko. Irundik-Otzauertera doan bidean Beasain oso ondo kokatua dago erromesek aterpea hartzeko. Garai batean Agirrezabal baserria omen zen erromesen ospitala edo ostatu. Aterpea bukatu ondoren, Done Jakue bideko lagunen Elkartearen esku utziko du aterpearen kudeaketa eta zaintza Udalak.

En las próximas elecciones municipales no me presento para alcalde cerrando así un ciclo de ocho años como alcalde. Han sido unos años muy interesantes en lo personal. Quiero despedirme de todos los vecinos por el apoyo recibido y disculparme de los que en algún momento les he faltado o defraudado. En colaboración con los demás grupos municipales nos hemos esforzado en trabajar a favor de los beasaindarras. En política social en este momento tenemos tres centros de día y la Residencia Arangoiti con una ampliación de plazas significativa. En las actuaciones y proyectos que hemos desarrollado nos hemos esforzado en ofrecer lugares de encuentro y convivencia; equipamientos para permitir una vida saludable. En cuanto a la vivienda protegida el ritmo ha sido más lento pero las nuevas viviendas de Bista Alai y la rehabilitación de Arana Kalea son para mí un motivo de satisfacción. La recuperación del entorno de Igartzta ha sido un reencuentro gozoso con la historia dinámica y emprendedora de Beasain.

En este número de la revista se nos presenta a la Coral Loinatz dispuesta a celebrar con ilusión su 25 Aniversario. El Ayuntamiento también se adhiere a esta efeméride. La Coral es un ejemplo de trabajo y buen hacer que tiene un lugar preferente en la agenda cultural del municipio y al mismo tiempo es la embajadora de Beasain en otros muchos lugares.

Pepe y Julio rememoran sus vivencias como testigos privilegiados de los cambios sociales del municipio.

Se nos informa también de las obras de ampliación de la Residencia Arangoiti.

El nuevo albergue de peregrinos que se está construyendo en la primera planta del molino de Igartzta es una actualización del antiguo hospital de peregrinos ubicado en el caserío Agirrezabal y que servirá de cobijo a los peregrinos que se dirigen a Santiago.



: KEZKATI

Ez dira garai onenak zinemarentzat. Gaur egun, Internet bidez esku-eskura ditugu nahi ditugun filmak eta nahi ditugun orduan. Telebista katea hauta-tzeko ere lanak izaten ditugu, gero eta gehiago baitaude. Hala ere, zinema maite dugunok ez dugu etsitzen. 16 urte daramatzagu Goieniz Zine Klubean lanean. Urtean bi ziklo antolatuta izan ditugu, "Gau Laburra" eta "Begirada" programez gain. Saiatu saiatzen gara eskaintza anitza eta, batik bat, ikuslegoari zerbait esan diezaieketen edukiak dituzten pelikulak ekartzen. Noski, ez dugu beti bete-betean asmatzen. Baina eskaintza komertzialetik harago dauden zirrikituak arakatu eta interesgarriena geureganatzen behintzat ahalegintzen gara.

Maiatzean, esaterako, "Begirada"ren barruan, primerako bi film botako ditugu: Elia Kazanen "La Ley del Silencio" (1954) eta Robert Rossenen "El buscavidas" (1961). Telebistan eta zinema modernoetan aurki ez daitezkeen pelikulez gozatzera gonbidatu nahi ditugu beasaindarrak. Eta ez bakarrik beasaindarrak, goierritarrak ere bai. Goieniz bailara mailan zinemarekiko zaletasunari bide emateko jaio zen eta hori da gaur oraindik nahi duguna. Egia esan, zorreretan gaude gure publikoarekin. Ikuslerik ezean, alferrikakoa baita gure lana. Baina badugu zortea eta Goienizek duen publikoa zerbait bada, fidela da. Gure erronka gero eta gehiago izatea da. Lortuko dugu. Gonbidatuta zaudete zinemaz gozatzera!

[Beasain]
egunez egun

El molino de Igartza abrirá sus puertas como albergue de peregrinos antes de verano



Done Jakue Bideko Lagunak elkarteko kide Antonio Jariten arabera, 1567. urterako erromesek Igartza zeharkatzen zuten Santiagora bidea egiteko. Hemendik aurrera, Beasaindik igarotzen diren erromesek atsedean hartzeko txokoa ere izango dute. Igartzako errotan obretan ari dira aterpetxe bihurtzeko eta, aurreikuspenen arabera, uda aurretik zabalduko ditu ateak.

Igartzako monumentu multzoa aldatuz doa. Oraindik ez dira aurreikusitako esku-hartze guztiak amaitu. Errotan obretan ari dira, uda aurretik zabalduko baita Done Jakue bideko erromesentzat aterpetxea. Hogeitabat lagunentzako tokia egongo da. Barneko bidea egin nahi dutenek, Gipuzkoan badituzte beste aterpetxe batzuk, esaterako, Irunen, Astigarragan, Andoainen, Tolosan... Hemendik gutxira, aukera bat gehiago izango dute Beasainen. Done Jakue Bideko Lagunak elkarteko Antonio Jariten hitzetan, "garai batean, Beasainen, aterpetxetzat Agerrezabal baserria genuen. Orain, Igartzakoarekin, lekukoa berreskuratu nahi dugu eta azpiegitura bat gehiago eskaini, erromesek bide hau aukera

dezaten. Gipuzkoan, 20 bat kilometroro dugu aterpetxe bat. Zerbitzuak eskaintzen diren heinean, gehiago erabiliko da barneko bidea. Gainera, oso polita da, eta Done Jakue bideko hainbat arrasto topa daitezke. Duela 500 eta 600 urte gehien erabiltzen zen bidea da eta datuen arabera, 1567. urterako erromesek erabiltzen zuten". Noski, Jaritek dioen moduan, "bideak erromesak adina daude. Gipuzkoan badugu beste bide bat ere, Murumenditik datorrena, Albizturtik. Salbatorera jaitsi eta handik Ojarrira joan daiteke, Idiazabalera". Edonola ere, "behin bidea egiten duenak, errepikatu egiten du. Done Jakuek badu zerbait, eta ez dakit zer den, lotzen duena".

"En Beasain, teníamos el hospital de peregrinos en el caserío Agerrezabal. Con el nuevo albergue de Igartza recuperamos el testigo. Todos los días pasan peregrinos por Igartza. El camino del interior es bonito, con bastantes vestigios jacobeos".

Antonio Jarit

Asociación de los Amigos de los Caminos de Santiago de Gipuzkoa



Juanito Lasak eta Thomin Sarriegik 1993an egin zuten Done Jakue bidea. Argazkian, irteeran.



Pepe Casado eta Julio Arraiza

“Dena ikaragarri aldatu da eta hoberako”

“De qué vamos a hablar?” preguntan. Pues de cómo ha cambiado Beasain y la vida de los beasaindarras en estas últimas décadas. Los testimonios de Julio Arraiza y Pepe Casado son el mejor ejemplo.



◀ Pepe Casado

◀ Julio Arraiza

Hamalau urterekin hasi zineten lanean eta jubilatu arte, gogor borrokatu duzue bizitza aurrera ateratzeko. Gaurko gazteak ikusita, zer bururatzen zaizue?

Pepe: Jubilatuta ere, azkenerako aspertu egiten zara! Gaurko gazteak, 14 urterekin, haurrak dira oraindik. Denetarik daukate. Guk, berriz, ezer ez. Duro bat lortzeko geltokira joaten nintzen ni txatarra bila. Trenbidetik torlojuak hartzen genituen gero saltzeko. Beti ezkutuan. Beharko zer edo zer egin. Pentsa, amak, denbora asko igaro eta gero, esan zidan urteak eman zituela ogirik jan gabe, berari zegokion zatia niri ematen zidalako. Lanean hasitakoan ere, lehenengo urtean, egunean 5,25 pezeta kobratzen nituen. Den-dena aldatu da, eta batik bat, jendearen bizi-kalitatea.

Julio: Bai herria ere! Bideluze plaza ikusi besterik ez dago! Eta Dolareatik aurrera, Ormaiztegi aldera egin duten pasealeku zoragarria, kaleak oi-nezkoentzat jartzea... Honek Venezia dirudi eta! Dena onerako izan da. Mila aldiz hobeto bizi gara. Pena da zahartu egin garela! Orduan lana besterik ez genuen egiten.

Pepe: Astelehenetik igandera. 12-14 ordu inguru. Orduan ez zen ezer irabazten. Ni soldadus-kara joandakoan, 2.800 pezetako soldata nuen.

Julio: Pentsa, ni ezkondu nintzenean, duela 53 urte, etxebizitzak 16.000 eta 20.000 pezeta artean zebiltzan.

Pepe: Orain, Beasaingo egoera ekonomikoa ere ona da. Bernedo eta Marqués enpresak itxi zirenean eta, egon zen herria okerrago. Orain enpresa indartsuak ditugu. Hala eta guztiz, orduan bizitza alaiagoa zen.

Alaiagoa zen bizitza? Zergatik?

Julio: Ez ginen gau erdia baino lehen erretirutzen. Lanetik atera eta txikiteora joaten ginen. Hartuko genituen 25 bat eguerdian eta beste hainbeste iluntzean! Arana eta Iturriotz kaleak tabernaz beteta zeuden. Alaiagoa? Izango ez zen ba! Uste duzu orduan bazegoela politikarik? Nork agintzen zuen ere ez genekien!

Pepe: Ezta axola ere! Euskaraz egitea debekatua zegoela lanean, besterik ez genekien.

Julio: Gerra zela-eta, ni Ingalaterrara eraman ninduten sei urterekin “Habana” itsasontzian. Gerra zibilean joan nintzen eta bueltatu nintzenean, 1. Mundu Gerra hasia zegoen. 11 urterekin bueltatu eta ez nekien gazteleraz hitz egiten. Baserrira joan eta han, berriz, ez zekiten gazteleraz, euskaraz bakarrik!

Jende asko Aste Santuetako oporretatik bueltatu berria da. Gazte denboran, oporretara joan zineten sekula?

Julio: Ni Iruñara joaten nintzen osaba baten etxera. Joan orduko, laneko arropak jantzi eta etxea margotu behar izaten nion. Horiek izan dira, nire bizitza osoan, nire opor bakarrak!

Pepe: Ni lanagatik ibili naiz kanpoan. Gainontzean, oso gutxi.

Pepe Casado

“Empezamos a trabajar a los 14 años. Trabajábamos de lunes a domingo 12 y 14 horas. Cuando me fui a la mili, cobraba 2.800 pesetas al mes”.

“En la posguerra, teníamos racionamiento de pan. Después de muchos años, mi madre me dijo que durante años ella no había probado el pan porque me daba a mí su ración”.

“Todo ha cambiado una barbaridad. A mejor. Aunque la vida antes era más alegre”

Julio Arraiza

“Ya no se chiquitea. Antes, tomábamos 25 al mediodía y otros 25 a la tarde. Claro que la vida era más alegre. ¿Crees que se hablaba de política? ¡No te enterabas ni de quién mandaba!”

“Debido a la guerra, me llevaron a Inglaterra y viví con una familia de acogida desde que tenía 6 años hasta los 11. Cuando me reclamaron y volví, no sabía hablar el castellano”.

“Cuando me casé, hace 53 años, los pisos andaban entre 16.000 y 20.000 pesetas”.

“También el pueblo ha cambiado de forma espectacular. No hay más que ver la plaza Bideluze. Y toda la zona de Dolarea para adelante. ¡Esto parece Venecia!”



[Beasain]
egunez egun

Maiatzaren 16an

zabalduko da Bertso Eskolan izena emateko epea

Beasaingo gaztetxoek txikitatik bertsotan trebatzeko aukera paregabea dute. Ariketa ezberdinen bidez, bat-batekotasuna lantzen dute, gaiak asmatuz, puntuka arituz, e.a. Duten zaletasunari bide ematea da helburua edota zale berriak sortzea. Aurtengo ikasturtean, 24 ikasle dabilta Beasaingo Bertso Eskolan hiru taldetan banatuta.

Bertso Eskolan izena emateko epea maiatzaren 16tik 27ra luzatuko da. Ikastetxeetan banatuko da informazioa eta matrikula orria.

Taldeak:

Asteazkenetan: 13:30/14:30.

Ostegunetan: 13:30/14:30.

17:15/18:15.

Matrikularen kostea: 30 euro.

Ahokotasuna landuz

Halaber, ikastetxeetan, 2004tik, Bertsolaritza eta Ahokotasuna programa lantzen dute Beasaingo Udalak eta Gipuzkoako Bertsozale elkarteak sustatuta.

Egindako lana jendaurrean erakutsi ohi dute ikasturte amaieran. Aurten, jaialdiak egingo dira maiatzaren 17an eta 19an, Usurbe an-tzokian, arratsaldeko 18:00etan.



Xabier Mendigurenen “Sakoneta” liburua aukeratu dute Irakurketa Tailerretan lantzeko




Abiadura Handiko Trena pasa ahal izateko Sakoneta baserria eraitsi behar dute, horrek dakartzan eztabaida eta liskarrekin. Horra bi hitzetan Xabier Mendiguren idazle beasaindarrak bere azken eleberria ontzeko erabili duen argudioa. Horixe da, hain justu, maiatzean egingo diren Irakurketa Tailerretan aztertuko den liburua. Irakurzaletasuna bultzatze aldera, Udaleko kultura saileko teknikariek

Igartza Sari banaketa ekitaldia aprobetxatu zuten, tailerretan parte hartuko duten guztiei liburua doan banatzeko. Bi saio egingo dituzte. Lehenengoan irakurleak elkartuko dira eta bigarrenagoan, idazlearekin egingo dute bilkura.

Apirilaren 14tik maiatzaren 6ra: Liburuak jaso, Kultura-Euskara sailean edo 943 028 063 telefono zenbakian. ebpn@beasain.net.

Maiatzaren 19an: Lehenengo bilera, Kultura sailean.

Maiatzaren 26an: Xabier Mendiguren idazlearekin topaketa, Kultura sailean.



Merkatu Txikia antolatu du Ikastolako guraso taldeak

Maiatzaren 6an eta 7an egingo da Loinazko San Martin plazan

Beasaingo Ikastolako guraso talde baten eskutik, maiatzaren 6an eta 7an Merkatu Txikia egingo da Loinazko San Martin plazan. Arropak, zapatak, liburuak, etxetresna elektrikoak... denetarik aurki daiteke materiala jasotzen ari diren biltegian.

"Ikastolako festan urtero bigarren eskuko azoka egin izan dugu, berrerabilpenaren gaia lantzeko eta trukea zer den erakusteko. Eta bururatu zitzaigun antzerako zerbaitegitea berrerabilpenaren filosofia hori sustatzeko", dio Lierni Ormazabalak. Pentsatu eta egin. Aurreko Gabonetan antolatu zuten lehenengo aldiz Merkatu Txikia. "Egia da - dio Nekane Zufiaurrek- bestela oparirik jasoko ez zuten askok, opariak izan zituztela Merkatu Txikiari esker". Izan ere, "argi ikusten da zenbat gauza ditugun behar ez ditugunak. Estreinatutako gabeak jasotzen ditugu eta tira, horrela behintzat batzuk aprobetxatu ez dituzten gauzak beste batzuk erabiliko dituzte".

Ekimena Beasaingo ikastolako kultura taldeko gurasoena izan da eta pozik daude jendearen erantzunarekin, sekulako artikulu pila jaso baitute. Gehien-suenak euro baten eta 50 euroren artean salduko dituzte.



Nekane Zufiaurre, Enara Begué eta Lierni Ormazabal.

Loinatz Txirrindulari Elkarteko zikloturista taldea, sasoiko

Loinatz Txirrindulari Elkarteko zikloturista taldea indarrean dago. Duela pare bat urte hasi ziren igandero irteerak egiten, kirola eginez asteburuaz gozatzeko asmoz. Martxotik irailera bitarteko egitaraua borobildua dute. Esteban Auzmendi zikloturistaren hitzetan, "hogeitabat lagun bildu ohi gara. Normalki, Gipuzkoan barrena ibiltzen gara, baina Nafarroara ere egiten ditugu txangoak".

Goiz parteko irteerak izaten dira. 70 bat kilometro eginez hasi ginen eta orain 90 bat km egiten ditugu. Amaitzerako 100 edo 130 km inguru egitera iritsiko gara".



Jon Erguin, el incombustible

Jon Erguin sigue acaparando titulares allá donde va. Ha conseguido el puesto número 13 en el pasado Campeonato del Mundo de triatlón disputado en Finlandia. Es, además, subcampeón de España y campeón de Euskadi y Aragón. **Zorionak!**



Loinatz Abesbatzak 25 urte bete ditu

Zorionak eta bejondeizuela!




Argazkia: Juan txo Uhanua

La Coral Loinatz lleva un cuarto de siglo cantando. En este tiempo han completado un repertorio de más de 400 obras y a lo largo de su historia han ganado concursos como el de Ejea de los Caballeros en el 1992 o el de Cantonigrós, lo que les abrió las puertas para participar en el Gran Premio del Canto Nacional. Han ofrecido conciertos en Valladolid, Torrevieja, Logroño, Donostia... y hasta en ciudades europeas como Londres o Roma. En la última edición de la Quincena Musical donostiarra pudieron estrenar la Misa de Garbizu. Vamos, una trayectoria digna de aplauso.

“Bakoitzak bere modura bizi du abesbatza, baina denontzat da garrantzitsua”, diote kideek. Familia handi bat. Horixe da Loinatz Abesbatzak 25 urte hauetan egin duena. Ostiral gauean elkartzen dira entseatzeko baina astean behingo hitzorduak askorako ematen du. Azken mende laurden honetan erreperorioa zabaltzeaz gain, bidaiatu, lehiaketetan parte hartu, sariak irabazi... denetarik egin dute. Eta batik bat, gozatu. Abesteaz eta adiskidetasunaz. Gaur egun, berrogeitaka kide ditu abesbatzak, baina egungoez gain, urte guztietan hauetan, beste 150 bat lagun ibili dira abesbatzan. Guztien partaidetza eskatuko dute maiatzean, urteurrena ospatzeko, eskainiko duten kontzertu baterako. Erakusketa bat ere zabalduko da abesbatzaren historia laburbilduko duten argazki, jantzi, e.a.ekin.

Oraingoz, familia handituz doa. “Loinatz Abesbatzaren harrobia Musika Eskolan dago” diote. “Hori bai, abesbatzan bertan ere senar-emazteak, anai-arrebak... denetarik dago”.



Argazkia: Juan txo Uhanua

Con motivo del 25 aniversario, los conciertos de este año serán especiales. Además, en mayo presentarán una exposición que resume su trayectoria.



1 Irati Otamendi

"No es cantar y punto, compartimos muchas cosas"

"Ni duela zortzi urte hasi nintzen. Aurretik Loinatz Txikin eta Musika Eskolako abesbatzan ibili nintzen. Niri musika gustatzen zait, kantatzea ere bai, baina Loinatz abesbatzan duguna hori baino askoz gehiago da. Adin eta modu ezberdinetako jendea dago. Ez da kantatzera joatea eta kito. Gauza asko partekatzen ditugu. Familia bat gara. Askororretatik elkarrekin daude. Guk, beranduago sartutakook, familia osatu egin dugu. Eta aurren, 25. urteurrena dela-eta, emanaldiak bereziagoak izango dira. Gainera, tarteka, lehiaketaren batera ere aurkeztu gara eta horrek balio digu motibatzen. Geure burua gehiegi estutu gabe baina... zeren gure helburu nagusia gozatzea da. Lehiaketetako dinamikan sartzeko askoz ere ordu gehiago eman beharko genituzke entseatzeko eta ez astean behin, gu elkartzen garen bezala".

2 Lore Aldaregia

"Los mejores ratos en mi vida se los debo a la coral"

"14 urterekin hasi nintzen eskolako abesbatzan eta Loinatz abesbatzan 25 urte daramatzat. Neu naiz taldeko zaharrena baina asmo maite naute taldekideek, eta baita nik haiek ere. Askoren ematen dit abesbatzak. Dena da niretzat. Bizitzako unerik hobereenak zor dizkiot. Nire lehenengo senargia ere abesbatzan ezagutu nuen. Izugarri gustatzen zait abestea eta oso ondo etortzen zait. Azken urte hauetan asko aldatu da abesbatza, batik bat, afinitatean. Hasieran denek ez zekiten solfeo. Gaur egun, bai. Gainera, sekulako zortea dugu zuzendariarekin, Xabierrekin. Kategoriazkoa da. Niretzat abesbatza da terapiarik onena".

3 Juan txo Unanua

"Tenemos la gran suerte de tener como director, amigo y maestro a un gran músico y pedagogo como es Xabier Sarasola"

"¿El origen? Anteriormente había la Coral Loinaz. Su trayectoria duró de 1936 hasta el año 86. Nosotros hicimos el primer ensayo como Loinatz Abesbatza en enero de 1986. Hasta entonces, salíamos con el coro del Olentzero y Loinatz nació gracias a un grupo de gente como Patxi Lasa, Juan txo Alcayaga y Xabier Sarasola.

En estos 25 años hemos cantado, hemos aprendido a cantar, hemos viajado, hemos convivido, nos hemos hecho amigos... Vivimos y sentimos la coral, disfrutamos. Y tenemos la gran suerte de tener como director, amigo y maestro a un gran músico y pedagogo como es Xabier Sarasola".

4 Beatriz Mendoza

"Yo soy la última en entrar y todavía no me he aprendido todos los nombres"

"Ni naiz abesbatzan azkena sartutakoa. Urrian hasi nintzen. Musika Eskolako irakasle batek galdetu zidan ea nahi ote nuen eta nire anaia ere Loinatz abesbatzan dabilenez, animatu egin nintzen. Gustatzen zait. Egia da oraindik arazoak ditudala, zeren denen izenak ez zaizkit buruan sartu. Baina oso giro ona dugu geure artean".

Lo que no haya pasado en 25 años...

"Justo antes de cantar en Roma, en el Vaticano, nos tuvimos que cambiar de ropa junto a una columna de Bernini porque se nos hizo tarde. Los chinos nos sacaban fotos... Además, por un problema de vuelos el director no llegó. Y en Londres, a uno se le olvidaron los zapatos. Tuvo que salir volando de la Catedral de Westminster, coger el metro, ir a la residencia y volver".

Programa

MAYO

Del 20 al 29: Exposición "25 años de Loinatz Abesbatza".
en Usurbe Antzokia.

21: A las 20:30h. concierto de Loinatz Abesbatza, coro de la Musika Eskola Loinatz. En el acto participarán ex miembros de Loinatz Abesbatza.

AGOSTO

Del 20 al 27: Viaje y concierto en París.

OCTUBRE

8: Interpretación del Requiem de Fauré en el Festival de Órgano Romántico, *en Azpeitia.*

15: Concierto en el Topaketak, *en Tolosa.*

22: Concierto de estreno de la obra Credo-Loinatz del compositor Javier Busto, *en la Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción de Beasain.*

DICIEMBRE

Concierto junto al Conjunto Barroco de Donostia, *en la Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción de Beasain.*

Arriaran auzoan, haize berriak nagusi

Intxaurpe elkarteak bizia eta bizipoza eman dizkio auzoari, batik bat, bertako kideek indarrean eutsi nahi diotelako, auzolana eta identitatea bezalako baloreak berreskuratuz eta zabalduz. Mielmari Imazek, Aitor Mendizabalek, Iñaki Aranburuk eta Mikel Mendizabalek dituzten asmoen eta proiektuen berri eman digute.



Mielmari Imaz Aitor Mendizabal Iñaki Aranburu Mikel Mendizabal



"Asko kosta da elkarte hau egitea eta orain ez dadila lau plateretan geratu dena"

Intxaurpe elkarteak aparaldi bat ekarri dio auzoari, bestek beste, lehen ez bezala, orain hainbat ekintzaren eszenatoki bihurtu delako, ezta?

Iñaki: Asmo horrekin osatu ditugu hiru talde. Bat kudeaketaz arduratzen da, bestea kirol batzordea da eta hirugarrena, kultura batzordea.

Mielmari: Hiru batzordeek koordinatuta egiten dute lan. Helburu batzuk jarri genituen eta asmoa da hilero zerbait antolatzea. Urtarrilean txotx irekiera eta bertso afaria egin genituen, 60 lagunetik gora bilduz; martxo hasieran Arriarango ondareari buruzko hitzaldia antolatu genuen eta beste 70 lagun etorri ziren. AEKrekin batera, Korrika Kulturalaren barruan bertso tailerrak ere egin genituen Amaia Agirrerekin; iaz bezala, aurtene ere talo ikastaro bat egin nahi dugu 130 lagunek hartu baitzuten parte. Ekintza horiek aprobetxatu nahi ditugu auzotarrak elkartzeko.

Iñaki: Hasierako indar horrek auzoari bizitzeko poz pixkat eman dio. Edozein ekitaldi dela ere, adibidez, auzoko emakumeak luntxa prestatzera etortzen dira. Auzotarrek normaltasun osoz parte hartzen dute.

Kiroletan ere ez zabiltzate batere makal, ala?

Aitor: Maiatzaren 14rako mendi bizikleta ibilbide bat antolatu dugu, batzokiarekin eta Loinatz txirrindularitza elkartearekin batera. Gero, askaria eta afaritxo bat egingo dugu. Eta udazkenean, urriaren 1ean, beste sei herriekin elkarlanean, duatloia egingo dugu. Parte hartuko dute Ibarak, Amasak, Zubietak, Zilbetik, Gasteizek eta Bermeok. Eta noski, edozein kirol proba egin aurretik, auzolana tokatzen da, bideak garbitu, bazkaria prestatu...

Iñaki: Hemen beti auzolanak funtzionatu du. Edozer egin nahi dela ere, sistema egokia da eta beste elkarteak ere urrats hori ematera animatu nahi ditugu.

Mielmari: Azkenean da konpromiso bat eskatzea, zeren azken bolada honetan ematen du inork ez duela ezertan konprometitu nahi. Adibideak ematen hasi beharko dugu eta ez dadila egindakoa haizeak eraman. Elkarte hau egitea asko kosta da eta orain ez dadila lau plater eta kazolatan geratu. Jendeak murgildu behar du.

Bestek beste, Arriarango nortasuna landu nahi duzue...

Mielmari: Sei atal landu nahi ditugu: identitatea edo nortasuna, iraganaren eta etorkizunaren arteko lotura, auzolana, elkarlana, autonomia, izan ere, baditugu esku artean proiektu potolo batzuk aurrera begira, eta azkenik, transmisioa. Egiten dena modu pedagogiko batean egin nahi dugu ondorengo belaunaldiak transmititzeko. Esku artean dugun guztia aurrera eramateko, udalarekin hitzarmen bat sinatzeko asmoa ere badugu.

Iñaki: Eta bidelagunak bilatzeko. Adibidez, web gune bat lantzen ari gara, baina ez guretzako izango dena, baizik eta Intxaurpe eta beste elkarte batzuen topagune edo lotura izango dena. Jendea bateratuko duen web orri bat. Plataforma ireki bat. Mugarik gabekoa.



Arangoiti

egoitzaren handitze lanak, martxa onean



El nuevo edificio albergará una unidad de psicogeriatría y otra destinada a enfermos mentales. Cada módulo tendrá 15 habitaciones.

Etkez etxeko laguntza edo Eguneko Zentroa bezalako zerbitzuei esker, adineko pertsonak gero eta beranduago sartzen dira egoitzetan. Egungo gizarte politikak diseinatzen dira pentsatuz pertsona nagusiak ahalik eta denbora gehien euren etxeetan mantentzea dela hoberena, horixe baita gehiengoaren desioa. Alabaina, gizartea zahartzen doan heinean, beharrak areagotzen doaz eta egoitzak txiki geratzen ari dira. Horri erantzun bat emateko xedez, Arangoiti egoitza handitzeko obretan ari dira. Alde batetik, irisgarritasuna hobetzeko, espazio berriak sortu dira, kapera zaharra eraitsiz. Bestetik, mendi-hegal bat moztu behar izan da eraikin berri batentzat tokia egin ahal izateko. Eraikin berri horretan, besteak beste, bi modulu ezberdin eraikiko dira: psiko-geriatria unitatea eta gaixo mentalei zuzenduriko unitatea. Modulu bakoitzean 15 gela egongo dira, jangelaz eta ekintza ezberdinetarako gune zabal batez gain. Beheko solairuan, berriz, harrera, bulegoak, errehabilitazio aretoa, kafetegia edota patioa egongo dira.

Proiektua diseinatzera koan, segurtasuna izan da irizpide nagusietako bat, toki erakargarri eta eroso bat eraikitzearekin batera. Obrak maitezcan amaituko dira.

"El hecho de que los usuarios sean personas con sus capacidades mermadas, que prácticamente no van a salir de la unidad proyectada, nos hace sentirnos ante un reto de mucha responsabilidad. Por ello, hemos querido poner la mayor atención y esfuerzo en lo que entendemos como el corazón del proyecto: la creación de un hogar digno, confortable y seguro para los futuros residentes".

"Hemos tenido mucho cuidado en proyectar espacios al aire libre "seguros" porque los pacientes de las unidades psico-geriátricas no salen casi nunca de su módulo. Que cada módulo tenga un espacio exterior confortable al que puedan salir sin vigilancia los días de buen tiempo mejora muchísimo la calidad de vida de los residentes".

"Además hemos intentado evitar que los espacios interiores tengan aspecto hospitalario. Nuestra arquitectura busca crear espacios cálidos, acogedores y amables, de escala doméstica. Los espacios, vestidos de materiales claros y mucha madera de arce, buscan la luz y el contacto visual con el exterior".

Juan Beldarrain *Arquitecto*



1 ▶ IGANDEA

19:00etan.- Kontzertua: Acoustic Dúo (Gonzalo Tejada eta Joaquín Chacón). Igartza jauregian.

4 ▶ ASTEAZKENA

09:30etan.- Haur zinea eskolaumeentzat: "Franklin". Usurbe antzokian.

6 ▶ OSTIRALA

22:00etan.- Zarzuela gaua (Kantaka abesbatza). Usurbe Antzokian.

6tik 7ra ▶

18:00etan.- Ardo azoka. Kale Nagusian.

8 ▶ IGANDEA

08:00etan.- Mendi irteera: Sagastarri. Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkartea.

12 ▶ OSTEGUNA

19:00etan.- Hitzaldia: Emakumea eta giza eskubideak gerra zibilean eta lehen frankismoan. Igartza jauregian.

17 ▶ ASTEARTEA

18:00etan.- Bertsolaritza eta ahozketasuna. Usurbe antzokian.

18 ▶ AZTEAZKENA

09:00etan.- Hitzaldia, "Moda diseinatzailearen lana", Maialen Olano (Migdala). Udal Euskaltegian.

19 ▶ OSTEGUNA

17:30etan.- Hitzaldia, "Sare sozialak", Juan Arbulu. Udal Euskaltegian.

18:00etan.- Bertsolaritza eta ahozketasuna. Usurbe antzokian.

21 ▶ LARUNBATA

20:00etan.- Loinatz abesbatzaren kontzertua. Andre Mari Zeruratuaren Parrokian.

22 ▶ IGANDEA

08:00etan.- Mendi irteera: Azpeitia- Xoxote. Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkartea.

19:00etan.- Kontzertua: Klasizismotik erromantizismora (DUO IK). Igartza jauregian.

26 ▶ OSTEGUNA

19:00etan.- Irakurketa tailerra. Xabier Mendiguren idazlearekin topaketa. Euskara-Kultura sailean.

26tik 29ra ▶

18:00etan.- Garagardo festa. Loinazko San Martin plaza azpian.

27 ▶ OSTIRALA

18:30ean.- Musika kalean. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola, Gernika pasealekuko pilotalekuan.

28 ▶ LARUNBATA

09:30etan.- Irteera, Ataunera mintzalagunekin. Loinazko San Martin enparantzatik.

19:30etan.- Kantaldia. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola Gernika pasealekuko frontoian.

29 ▶ IGANDEA

Dantzari txiki eguna Antolatzailea: Aurtzaka Dantza Taldea.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 5etik 15era ▶

Beasain Institutuko Arte Batxilergoko ikasleen lanak. Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.

Maiatzaren 20tik 29ra ▶

Loinatz abesbatzaren 25. urteurrena. Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.



Maiatzak 5 ▶ OSTEGUNA

21:00etan.- Zine-kluba: Begirada zikloa. "La ley del silencio". Usurbe Antzokian.

Maiatzak 12 ▶ OSTEGUNA

21:00etan.- Zine-kluba: Begirada zikloa. "El buscavidas". Usurbe Antzokian.

Usurbe Antzokirako sarrerak aurretik erosteko.

Venta anticipada de entradas para Usurbe Antzokia.

Sarrera salmenta - Venta de entradas



CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

www.kutxa.net